

**AUGUSTIN ZUBIKARAIREN BIOGRAFIA  
URRATS BERRIAK**

Iazko urtea, 2009koa, azkenetan zela, kresal usaineko bi liburu eskuratu ahal izan genituen: **Augustin Zubikarai, herri euskararen zaindaria (1914-2004)** zen bata, Ana Urkizak idatzia eta **Augustin Zubikarai. Bigarren Errepublikaren denboraldiko idazlanak (1931-1937) eta Ondarroa. Egunkari eta aldizkarietako idazlanak** bestea, Julen Urkiza karmeldarrak prestatua.

Idazle ondarroar baten ohoragarri haren biografia osatzera datoz herri bereko beste bi idazle: Julen Urkiza eta Ana Urkiza osaba-ilobak. Ez elkarren lehian, ezta elkar harturik ere, elkarren osagarri baizik. Hala gertatzen direla esango nuke. Izan ere, bata eta bestea Ondarroako herriak bideratutako bi proiekturen barruan sortu dira, nahiz eta Anarenak **Elkar argitaletxearen** bidez argia ikusi eta Julenenak, Ondarroako Udalaren bidez.

“Bi-biak ondarrutarrak; bitzuok euskararen mundura etorriak, itsas lurrun eta turrunen artean” dio Andres Urrutia euskaltzainburuak Ana Urkizak idatzitako Augustinen biografia liburuaren atarikoan. **Bi-bi** horiek, jakina, Augustin Zubikarai bera eta Ana Urkiza dira kasu honetan. Nik bi horien izenei hirugarren bat gehituko diet: Julen Urkizarena. Hau ere “itsas lurrun eta turrunen artean” sortua, euskararen mundura geroago

eta beste ingurumari batean etorria bada ere. Horrela, Augustin Zubikarairen figura ongi osatua izan dela uste dugu. Batetik, luma erraz eta jantzi baten eta, bestetik, historialari zorrotz baten ikusmiran izateko zoria izan du Augustinek.

Anak Augustinen biografia landu du. Haren bizitza-zertzeladak, haren ingurumaria, pentsaera, joerak, harremanak, idazlanak agertu dizkigu luma erraz eta trebez. Julenek ez du testu propiorik sortu. Izenburuak berak dioenez, 1931tik 1937ra arteko Augustinen idazlanak bildu ditu, egunkari eta aldizkarietan argitaratuak. Hau da, Augustin Zubikarairen beraren testuak aurkituko ditu irakurleak liburu honetan. Bestalde, garaia mugatua da eta garai horretako lan guztiak al baitxukunen transkribaturik **cd**-an argitaratu badira ere, liburuan lan hautatuak sartu dira soilik.

Biografiaren egileak eta Augustinen testuen prestatzaileak bi liburuetan bildutakotik, nik ere aletxo batzuk bildu nahi nituzke, zuri, irakurle horri, eskaintzeko.

## **Bokazio baten sorrera**

Biografia osoan barrena sustraietan tinko ageri zaigu Augustin. Ume-umetatik barneratu zitzaizkion zenbait joera, geroko bizitzan beraren izaeraren ezaugarri izango zirenak. Gurasoen eragina, batez ere aitarena, azpimarratzen dela esango nuke. Arotza zuen aita, Salvador Zubikarai. **Kontalari fina zen, ohiturak gordetzekoa eta irakurle porrokatua. Augustinen etxean ez zen sekula egunkaririk falta, ez eta gertuko albisterik ere: aitak beti zeukan zer kontatua, zela egunkari edo aldizkarietan irakurritakoa, zela aroztegian gertatutako bitxikeria edota batzokian entzundako jakingarririk. [...] Etxean ikasi zuen, beraz, Augustinek, ohiturak ezagutu, maitatu eta gordetzen; kontuei adi egon eta entzuten; handik eta hemendik jasotako gertaerei gorputza ematen; eta hurbileko errealitatea interpretzen eta maitatzen.**

Etxetik zekarren erlijiotasuna ere. Bi aldetakoak ziren fede bizikoak eta finak. Augustinen amaren aldetiko osabak abadeak ziren eta aita ere oso eliztarra zenez, ume-umetatik ikasi zuen Augustinek elizakoak zirela eguneko lehen betekizunak.

Kulturari dagozkion hainbat gertaera aipatzen dira, Augustinen haurtzaroan. Esaterako, Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren sorrera. Bi erakunde horiekin kontrastean bezala, hau dio ondoren: **Hala ere, eta oraindik 1918an, eskoletan, ume euskaldunen mihiak mututzeko eraztun salatariak erabiltzen ziren.** Urte horretan, 1918an, Kirikiñok **Abarrak** liburua idatzi zuen, herriak egunero erabili ohi zuen euskaran idatzia. Geroago Augustinen gogo-gogoko liburua izango da. Beste gertaera bat, hurbilagokoa hau, Txomin Agirreren heriotza izan zen 1920an, Augustinek sei urte besterik ez zituela.

Augustinen biografiaren idazleak haren bizitzaren, ibilbidearen oinarri izango ziren bost zutabe aipatzen dizkigu: **albistearrekiko edo berrikuntzarako grina, ohiturak ezagutu eta gordetzeko ahalegina, eliz betekizuneko gogo, irakurzaletasun asegaitza eta itsasoarekiko lilura.** Txiki-txikitatik jaso omen zituen horiek Augustinek.

## **Lehen idazlanak**

Hamar urte zituela Saturrarango seminarioan sartu zen. Apaiz izateko bidea hasi zuen, beraz. Eta haren bizitzaren oinarri izango ziren bost zutabeak seinatu ondoren, haren biografoak hau dio: **Garai honetan, bi zaletasun handi deskubrituko eta biziko zituen: liburuak eta itsasoa. Gerora bihurtuko zen idazlearen iturri agortezinak biak ala biak. Batak ezagutzaren eskainiko zion eta besteak inspirazioa.**

Seminarioan gaixotu egin zen eta etxera itzuli behar izan zuen. Etxetik ahalegindu zen ikasketak jarraitzen. Liburuetara guztiz zaleturik, haiek irakurtzen ematen zuen gaixoaldiak, besterik ezean, eskaintzen zion astia. Hau dio Anak: **Etxera**

helden ziren liburu guztiak irakurtzen zituen eta baita Seminariotik bere lagun banaezina zen Jose M<sup>a</sup> Arizmendiarrietak bana-banaka bidaliko zizkionak ere. Euskal idazleen artean, Azkue, Manterola, Orixe, Mujika, Kirikiño, Lardizabal, Zubimendi eta Txomin Agirre izan ziren bere lehen irakurketak, eta erdarazkoen artean, Cervantes, Gabriel y Galán, Villosada, Lacordaire, Campion, Delli, Papini, Ardel, Douillet, Pierre Lhande eta Fisco, besteak beste.

Barruz, adimenez, janzteko, pentsamendu eta ideien munduan murgiltzeko ezin hobeki etorriko zitzaizkion irakurketa haiek. Lehenik barruko biltegia hornitu behar, gero beretik emango bazuen, hutsetik ez baita ezer sortzen. Hala ekingo zion idazle gisa lehen saiotxoak egiteari: **halaxe, hamabost urte baizik ez zituela, idazten hasi zen. Bere lehenengo artikulua Jaungoiko-Zale aldizkarian argitaratu zituen.**

Gaixoaldian mundu berri baten aurkikuntza edo antzeko zerbait sumatu zuen. **Filosofiarekin egin zuen topo, pentsamendua eraikitzen laguntzeko tresnarekin.** Bien bitartean, hoztu egin zitzaion apaiz izateko gogoia. Hala ere, gaixoalditik ongi sendatu gabe oraindik, Gasteizko Seminaria joan zen, garai hartako araudi zorrotzak ez baitzion uzten ikasketak etxetik jarraitzen. Eta berriro ere gaixotu egin zen eta etxera itzuli behar! Oraingoan, behin betiko. Dena dela, Gasteizko urte hura ongi etorri zitzaion, kultura-erakunde interesgarria eta haren buru zen pertsona ezagutzeko zoria izan baitzuen: “Kardaberaz Bazkuna” eta Manuel Lekuona.

Hasieratik ikusi zuten zerbait harengan; euskal kulturarako traza ona edo... Eta dei egiten hasi zitzaizkion handik eta hemendik. **1930ean, 16 urte zituela, Augustin Zornotzarantz abiatu zen, Jaungoiko-Zale Bazkunak deituta. Jaungoiko-Zale Bazkunak Jaungoiko-Zale aldizkaria argitaratzen zuen eta garai hartan, euskal gaien inguruan astekari bat plazaratu nahian zebiltzan. 16 urteko gazte harengan jarri zituzten be-**

giak hura antolatzeko. Augustinek baietz, baina berriro ere gaixoaldiak jota, etxera itzuli behar. Astekari hark 1932an ikusi zuen argia, **Ekin** izenaz.

Garai hartan, behin eta berriro gaixoaldien zartadak eragirik edo, Augustin bere etxeko txokoan kiribildu zen. **Etxeok prestatu zuten espazioa, Augustinek bere gauzetarako erabiltzeko: idazle gaztearen idatz txokoa.** Hantxe irakurtzen ematen omen zuen eguna. Bakardadean eta liburu artean bilatu zuen babesa, ama kezka betetzeraino. **Augustinen amak, ardurata, behin baino gehiagotan galdetuko zuen ahots goran: “Baiña noiz urten bear dau mutil onek kalera?”**

Zuzendari arduratsu baten aholkua eta laguntza falta izan zituen eta erabaki garrantzitsuak hartzeko unean, bakarrik hartu behar izan zituen. **Urteak alferrik galdu izanaren sentsazioak harrapatu zuen Augustin.** Baina, azkenik, hautsi zuen bakardadeko hesia gizarteko konpromisoetan murgiltzeko. Luistarren Bazkunako zuzendari izango dugu. **Luistarren Bazkuna, bitzta erlijiosora batutako parrokiako gizonetako taldea zen.**


Aitaren bidez Batzokira hurbildu zen Augustin; han hiru sail eratu ziren: emakumeena, dantza-taldea eta antzerkia. Azken sail honetan sartuko zen Zubikarai gaztea eta horrek berez-berez markatuko zion geroko ibilbidea.

## **Kazetaritzan lehen urratsak**

Batzokian zuten beren txoko maitea Ondarroako idazleek; han izaten zuten kulturako eta politikako berri, han eskolatzen eta trebatzen ziren herriaren zerbitzurako. Idazleak, ohiturari jarraituz eta une batzuetan debekuak zirela eta isilpean jardun behar zutelako, izenordeaz baliatzen ziren. Garai honetan, hauek aipatzen dizkigu Augustinen biografoak: **“Artibai”, “Txori Erreka”, “Basa-txoritxu” etab.** Haien artean garbi ikusi omen zuen bere bidea zein zen: **bere herriaren eta euskararen alde lan egitea. Eta euskara bultzatzeko eta maite zuen herriari bu-**

# Augustin **ZUBIKARAI**

Ana Urkiza



ruzko ideiak agerrarazteko modurik egokiena, jendearengan eragina izan zezaketen bitartekoak erabiltzea zen, hau da, egunkarietan idaztea.

Kultura arloan baziren garai honetan ereduak eta gidari onak, herria eraikitzeko euskaran eta literaturan tresna guztiz baliagarria ikusi zutenak; horietako bat zen Jose Ariztimuño “Aitzol”. Honek **El Día** egunkari elebiduna, EAJren organo ofiziosoa, abian jartzea lortu zuen. Goian aipatutako idazle horiek eta Augustinek egunkari hartarako Ondarroako kronikak idazten zituzten. “Underwood” idazmakina baten inguruan biltzen omen ziren. Augustini dagokionez, hau dio Ana Urkizak: **Halaxe, 1931ko uztailaren 8an, Augustin El Día egunkarian idazten hasi zen, egunkaria sortu eta urtebetera. 16 urte besterik ez zituen. “Ondarru” edo “Ondarrutik” zen bere txokoaren izena eta “Zutarra” ezizenez sinatu zituen lehen urte hartako kronikak. “Luzear” zen egunkari honetan astean behin argitaratzen zen euskarazko orriaren arduraduna eta Augustinek honi idatzi zion, bere ardurapeko sail horretan tokitxo bat eskatuz.**

Laster agertuko dira haren lanak **Euzkadi** egunkarian eta **Ekin** astekarian ere. Lehenengo kronikak eta geroago artikulak.

**Euzkadi**n Lauaxetarekin bat egingo du, zorionez. Honek hartu zuen bere gain Kirikiñok sortu eta bere ardurapean izan zuen euskal atala. **Lauaxetaren lan nagusietakoa herrietako berriemaileak eta idazleak bilatu, antolatu eta haiei gogoia piztarazi eta idaztera bultzatzea izango zen. Mitin eta hitzaldietan ibili ohi zen idazle berrien bila.** Augustin **Euzkadi**n idazten hasi aurretxean, Lea-Artibaiko idazleen artean hauek agertzen ziren: Lekeitioko Eusebio Erkiaga “Endaitz”, Mutrikuko J.M. Burgaña “Andoni”, Gurutz-ondo, Arno-Mendi eta Ondarroako J.M. Ituarte “Artibai”, Txori-etxea, Txori-erreak, Ibai-ondo eta Edurbero. Eta Ana Urkizak gehitzen du: **Augustinek ez zuen luze iraungo talde honetako partaide izan gabe.**

Ekin astekarian idazten hastea, Alexander Badiola **Jaungoiko-Zalere**n saltzaileak Ondarroan egindako hitzaldi baten ondoren, honek egin zion gonbidapenetik etorri zen.

“Ekinen sortzea ezagutu neban, bertan iñardu nebalako lanean, nire lenengo ogibidean. Giroa aldatu eta kristautasunari Euskalerrian eusteko, beste era baten plazara urten bearra goala eta origaitik sortu zan Ekin”.

**Euzkadin** Lauaxetarekin harremanetan jarri zela adierazi dugu. Harreman hauek sendotuz joango dira gerora eta Lauaxetak, herriko kronikak ez eze, herri-jakintza, ohiturak, estropada-bertsoak etab. biltzea ere eskatu zion. **Eta Augustini, bere bizitzako lan-arlo handi bat izango dena zabaltzen zaio.** Horrela, hiru lan-esparru landuko ditu **Euzkadin**: kronikak, artikulua eta herri-jakintza. Bestalde, Lauaxeta eta herrietako idazleen artean konfiantza handiko euskal eskola modukoa sortu zen. Gainerako idazleek ere, esaterako, garai hartako olerkariak, begi onez ikusten zuten Lauaxeta: **Lauaxetak, Kirikiñoren aldean, bi aldaketa nabarmen ekarri zituen: idazleei arre eta handiagoa eskaintzea, eta sabindar eskolaren idazkera nagusitzea.**

Artikuluetan bere-bereak izango diren ideiak errepikatuko dira, esaterako: kezka sozialak, langileak, konpromisoa... Abertzale eta kristau-konpromisoa gauza beraren bi alde balira bezala ikusten zituen. 1933an ELA sindikatu kristau-abertzalea sortu zenean, sindikatu horretan sartzeko langileei gogoia berritzen saiatzen zen bere artikuluetan. **Sozialistak indarra hartzen ari ziren aldi hartan, langileak abertzaletu beharra zegoela adieraziko zuen.** Ana Urkizak hiru gai berri lantzen hasi zela diosku: lehenengoa langileen gaia, bigarrena euskaraz idaztean egin zuen bizkaieraren hautua eta hirugarrena, irakurlea, hau da, “hartzailea” kontuan izanik idatzi beharra. Esaterako, ez zituen maila berean ikusten **Ekineko** irakurleak eta **Euzkadi**koak. Batean euskara herrikoia eta bestean jasoagoa erabili beharko litzatekeela uste zuen.



Garbizaletasunaren inguruan eztabaidak izan ziren. Severo Al-tubek lexiko garbia erabiltzera baino joskera ona, euskarari da-gokiona, erabiltzera jarri zuten euskal idazleak. **Erderismos** liburuan agertu zituen ideia horiek eta, bide batez, euskal hitz garbiak erabiliz, erdal kutsuko testuak osatzea salatzen zuen. Oihartzun handia izan zuen horrek. Eusebio Erkiaga, Larreko, Augustin Zubikarai etab. ere bat zetozen horretan. Baina garbiza-letasunaren alde ere agertu zen Augustin. Idazleen artean bi joe-ra ziren garai hartan: “**mordoi lotxo bada ere**” euskara herrikoia eta ulergarriaren alde egingo duten erraz-zaleak, batetik, eta garbizaleak edo sabindar eskolakoak, bestetik. Augustin bigarren joera honetakoa zen. Augustinek herriarentzako idatzi behar ze-la ulertzen zuen, berak, hain zuzen ere, herria prestatzeko an-tzerkia lantzen baitzuen. Baina euskaraz idazterakoan, modu jasoan idatzi behar zelako ustekoa zen, euskal literatura, hain zuzen ere, beste herrialdeetako literaturaren mailara igotzeko.

Guda-hotsak entzuten dira. Baina komunikabideak zentsu-rapean zeuden eta, ez zekiten gauza garbirik. Horregatik dio Ana Urkizak: **zurrumurruak hedaturiko beldurra eta egonezi-na zituzten bazka**. Augustin, bere printzipioetatik abiatuz, ge-rarren aurka zen: **Gizatasuna eta katolikotasuna oinarri, gu-dak ez zuten bere barruan lekurik**. Garai hartako idazleen go-goan zebilen ideia erresistentzia zen: **Fedea, alabaina, ez zen aski izango guda hari aurre egiteko**.

## **Lehen omenaldia**

1935eko abenduan Ondarroako herriak lehen omenaldia egin zion Augustin Zubikarai gazteari. 21 urte zituen eta he-rriak eskertu egin zion ordura arte egindako ahalegina eta, bi-de batez, haren gogoia piztu nahi zuen etorkizuneko lan han-diagoetarako. Euzkeltzale-Bazkunak antolatu zuen eta Augusti-nek idatzitako bi obra antzeztu ziren: **Aberri jagaz bizi** eta **Illobearen indarra**.

Egindako lan guztiaren eta garaitutako buruko minen ordain gisa edo opari lez “idazkortz” eder bat eskaini zioten Augustini, idazten bidea irekitzen jarrai zezan.

Herritar askoren gogo-gogoan zen Txomin Agirre. Baina hura idazle handi goi-mailakotzat zuten. Augustin herritik hurbilago ikusten zuten: Ondarroako herriak Txomin Agirre “idazle handia” ezagutzen zuen lehendik. Augustin, ordea, bestelakoa zen. Hurbilekoa. Augustin, bere antzerkiari eta artikuluei esker, herriaz eta herriarentzat idatziko zuen lehen idazle ondarrutarra izan zen.

### ***Egunaren erredazioan eta gerratean***

Aurrez, Iparraldera ihes egin eta Ziburun beste euskaldun batzuekin batera zela, Parisera joan eta han iheslari euskaldunak argitaratzekotan ziren aldizkari baten buru izateko deia jasozuen. Baina kontzientziak ez zion uzten halakorik onartzen. Urteko gudari izanik, bere lagunek frontean ziharduten bitartean ezin zen bera Parisen gozo-gozo egon. Bilbora etorri zen, bada, eta han Lauaxeta besarkatzeko zoria izan zuen. **1936ko bukaeran, Eusko Jaurlaritzak, itxaropena zabalduko zuen erabaki garrantzitsu bat hartu zuen: Eguna euskara hutsezko eguneroko berria sortzea.**

Egunaren erredakzio-batzordea sortu zen: zuzendaria Manu Ziarsolo “Abeletxe”, erredakzio-burua Augustin Zubikarai eta erredaktoreen artean hauek: Eusebio Erkiaga, Imanol Enbeita, Alex Mendizabal, Jose Bilbao. Kolaboratzaileak: Mikel Arruza “Arrugain”, Iñaki Eizmendi “Basarri”, Uzturre, Mendilauta, Barrrenoro, Montxor, Maite, Arritokieta, J.M. Arizmendiarieta... eta froga zuzentzailea, beriz, Antonio Ruiz de Asua.

J. Ajuriagerrak zorionak emanez hitz gozoak esan zizkion. **Eguna** ateratzen egindako ahalegina eskertu nahi izan zion: “Ba dakizu. Ekin aspertu barik. Ia munduan zear erakusten do-

gun apain-apain gure berezitasuna eta nortasun au, gure izkuntzaren ezaupide au”.

Lehenago ere adierazi digu autoreak Augustinen pentsaera komunikabideetan erabili beharreko euskarari buruz. Orduan euskara jasoaren alde agertu zen Augustin, baina norentzat idazten zen, irakurleak zer mailatakoak ziren kontuan izanik. Oraingoan, ordea, iritzi horren aurkakoa zirudiena agertuko du, baina irakurleak kontuan hartzeko zerean, bat dator guztiz lehen esandakoarekin. **Egunan** erabiltzen zuten euskara zela eta, alderdiko batzuk haserre zeuden: **Egunan ez omen zen Arana Goiriren idazkera zehatz-mehatz zaintzen.**

Augustinek, zuzendariari, bere iritzia argi eta garbi ezagutarazi zion: egunkariaren idazkera idazle bakoitzaren esku utzi behar zen ezinbestean; batetik, ezin zutelako idazlan bakoitza orrazten ibili eta, bestetik, irakurle asko eta asko ez zudelako Arana Goiriren idazkerara ohituta eta prestatuta, besteak beste, hartzaile asko gipuzkoarrak zirelako.

Zuzendaria agintarien beldur zen, ordea, eta ahalegintzeko eskatu zion Augustini, baina honek irmo azalduko zuen bere jarrera: Egunak, euskal eguneroko bakarra izanik, zabala izan behar zuen. Denek ulertzeko modukoa eta, han, jatorri askotariko idazleek izan behar zuten leku.

**Eguna** garaiz atera ahal izateko nekeak ikaragarriak izan ohi ziren. Izan ere, zentsurak gauzak zeharo zaildu zizkien; bestalde, goian aipatutako lagun guztietatik erredakzioan bi lagun besterik ez ziren izaten gehienetan: Augustin Zubikarai eta Eusebio Erkiaga. Zuzendaria, Alderdiko arazoetan murgildurik, nekez ikusten omen zuten. Telegrafo nahiz agentzietatik zetozen berriak erdaraz zetozen eta euskaratu egin behar. Lan izugarria batzen zitzairen eta une askotan ezinean, garaiz ez zirela helduko eta eten beharrean izaten ziren. Lanak gainez eginda, Augustin ez zen Bilbotik irteten. Gerrako kronikak astelehenean atera ahal izateko, igandeetan ere lan eta lan jarduten

zuen. Informazioa jasotzeko, ostera, idazkaritza nagusian lagun-min bat zuen, JM. Arizmendiarrjeta. (...) eta igande arratsalde guztietan harengana joaten zen, berarekin kontuak esan eta hainbat gorabeheraren berri eta zertzelada jasotzera. Umetatik ezagutzen zuten elkar, Saturrarango Seminariotik. Augustinek **Deia** egunkarian idatzitako hitz hauek jartzen dizkigu autoreak, bien arteko harreman estua adierazten dutenak:

“Auzoko lagun izan ginan gerra aurretixoan. Lankide zintzo ta gartsu gerratean. Ixilleko aolkari gerrako ezkutuko egun larrietan. Laguntzar jator eta zabal gerra ostean”. Harenganako konfiantza eta esker ona maiz agertzen du. Beste ataltxo batean hau dio: “Ikako berbeta be arengandik ikasi neban”.

Hainbat xehetasun dakartza Ana Urkizak **Egunako** erreportajei buruz: **Hasiera** batean, Egunako erreportajeak **besteen** ahotik entzundakoak izaten ziren, ez Augustinek berak lekuan jasoak. Baina apurka-apurka, tokian tokikoak jasotzen saiatuko zen. Andima Orueta, Euzkadi egunkariko erreportariarekin hasiko zen batera eta bestera gertaerak jarraitzen.

Egunak urte erdi eskas iraun zuen: 1937ko urtarrilaren 1etik ekainaren 13ra, Bilbo matxinatu militar-faxista eta erreketen eskutan erori zen arte.

Hemendik aurrera Augustin “Aralar batailoian” sarturik gudar agertzen zaigu biografiaren harian: Santoñan, Mieresen, Laredon. Hemen etsaien mende erori ziren eta armak kendu eta Castrora eraman zituzten, preso sarturik. Odorengo urteetan, 1941ean askatasuna lortu arte, lan gogorretan “Trabajadoretan” ibili zen batetik bestera. Gerrateko abentura latza bukatu zen eta etxerako bidaiak kontatu ondoren, hau dio biografian: **Halaxe** bukatu zuen Augustinek **36ko** gerratea 1941ean. **Bi** egunerako etxetik aldentzen zelakoan eta lau urte kanpoan ibilita.

Honaino helduta, gainerako bidaiak Augustinen biografian barrena, berak egin dezala eskatuko nioke irakurleari. Orain-

dik bide luze eta aberatsa du eta Ana Urkizaren liburua bidelagun on-ona gertatuko zaio. Nik, biografia hau gidari dudala, liburuaren iruzkin txiki bat egin nahi izan dut **Karmelen** irakurleentzat, baina ez biografia osoarena, guretzat urrunena den zatiarena baizik. Augustinen gaztaroari erreparatu diot, bada, geroko guztiaren abiapuntu eta oinarria hor ikusi baitut. Haren biografian aldirik interesgarriena, beharbada, eta guretzat ezezagunena ere bai; ziur asko, literaturako obrei dagokienez, ez emankorrena, produktiorik handiena 80ko hamarkadatik honakoa baita. Baina etapa hau ezaguna dugu eta gure interesen kamera ez da hori hartzera gelditu.

## **Bigarren Errepublika denboraldiko idazlanak eta Ondarroa**

Sarreran adierazi dugunez, liburua mugatua da. Mugatua, denborari dagokionez, 1931tik 1937ra artekoa hartzen baitu; eta mugatua, kronika eta artikuluei dagokienez, ez antzerki-lanei dagokienez, hauek garai horretan idatzi zituen hiruak baitatortoz. Liburuan sartu ez diren kronikak eta artikulua **cd**-an datoz, ez Augustinenak soilik, baita Ondarroako gainerako idazleenak ere.

Liburu hau guztiz interesgarria da idazlearen eboluzioa ikusteko. Augustin ez da estilo jantzi eta jaso duen idazlea. Ez da Txomin Agirre bezalako estilista bat. Baina bere-berea izango zuen idazkera finkatu zuen. Dena dela, aldian aldiko joera nagusietara moldatzen jakin zuen, 60ko hamarkadan sortu zen euskara batura izan ezik. Bizkaieran eta idazkera forma zaharrean, **h** gabekoan, irmo iraun zuen. Salbuespen hori bai, baina bestela, garai honetako haren testuetatik guk ezagutu dugun Augustinen azken testuetara alde handia dago. Zorrozki begiraturaz gero, Errepublika garaiko testuen artean ere bazen alderik. Nahita edo jakinaren gainean jokatu ohi zuen horrela, berak garbi ikusten baitzuen **Ekinen** idaztea, **Euzkadin** idaztea

**BIGARREN ERREPUBLIKA  
DENBORALDIKO  
IDAZLANAK  
(1931-1937)  
ETA ONDARROA**

Egunkari eta aldizkarietako idazlanak

**AUGUSTIN ZUBIKARAI**

Edizioaren prestatzailea:  
**JULEN URKIZA**

Ondarroa 2009

edota **Eguna** euskarazko egunkari bakarrean euskaldun guztientzat idaztea ez zela berdin. Baina ñabardurak ñabardura, gehiago edo gutxiago, lexiko eta idazkera sabindarra erabiltzen zuen hauetan guztietan.

Idazkera, garai hartan beraren berezitasunak edo beti berdin-berdin erabiltzen zituen formak errespetatuz, egokitu egin du prestatzaileak, gaurko irakurleari errazago gerta dakion. Zehatz-mehatz azaltzen ditu sarrerako **Argitalpen honetaz** atalean. Augustinen orduko lexikoaren zerrendatxoa ere badakar, horko hitz asko eta asko garai hartan erabiltzen ziren neologismoak baitziren. Horietako batzuek bidea egin dute eta euskaldun guztion lexikoaren ondare bihurtu dira.

Haren gaiak edo arloak lau direla dio liburuaren prestatzaileak: Kronikak, artikulua, olerkiak eta antzerkiak. Egia esan, olerkiekin ez du sail berezirik osatzen, artikuluetan eta gainerrako sailetan tartekaturik baitatuz gehienetan. Kronikei buruz hau dio testuen prestatzaileak:

***Kronika*** laburretan Ondarroako egoera agertzen dau. Augustin orduko Ondarroako bizitzaren ispilu bihurtzen da.

Augustinen eta beste Ondarroako idazleen kronika puntualak benetan aberatsak dira Ondarroako herriko bizitzaren eta asmoen historia egiteko.

Baina Augustinen idazle-ekarria ez da kroniketara mugatzen. Arlo zabalagoa behar zuen:

Kroniketan herriko bizia azaltzen bazan, artikuluetan orduko pentsaera agertzen jaku, pentsaera sozial-politikoak, kulturala eta erlijiosoa. Hemen Euskal Herri osoko arazoak agertzen dira, bai eta nazioartekoak ere, gizarteko arazoak izan nahiz politikoak.

Garai hartan euskaraz idazten zutenengan ardatz antzeko pentsamenduak gorpuztu ziren. Pentsamendu ardatz haien inguruan dabilta ia guztiak; hau da, nolabaiteko adostasunera

iritsi zirela dirudi. Hau dio Julen Urkizak sarrerako paragrafo batean: **Augustin gazteak idazten dauan argitalpenetan** (Ekin, Euzko, Euzkadi, Eguna, **eta** abarretan) badagoz orduko **pen-tsaeraren eta euskal izatearen ezaugarri argi batzuk**: hiru zutabeen gainean eraikitzen dira orduko euskaldun askoren idealak eta sentipenak: ***abertzaletasuna*** eta ***euskera*** alde batetik, eta ***erlijiotasuna*** bestetik, beste bien sustrai eta arima lez, hau da, abertzaletasuna eta euskerea gizatasun kristau batean oinarrituta.

Antzerkiak, haren idazle-bizitzan, toki berezia du: **Antzerkia** izan da Augustinen idazlanen artean eta haren literatura bizitzan bereziki azpimarratzekoa. Bere bizitzan 40 bat antzerki idatzi zituan. Oso gazte zela, hogeitaz, 1934an, antzerki bi idatziko ditu (Aberriagaz bizi eta Illobearen indarra), eta 1936an beste bat (Itxas lapurrak)...

Augustin gaztearen antzerki-lana orduko euskal kulturaren berpizkundean kokatu behar dogu, bereziki antzerkiaren berpizkundean. Berpizkunde kultural honetan sakon parte hartu eban euskal nazionalismoak; eta ekintza kulturala eta soziopolitikoak alkarri lotuta egozan, eta alkarren beharrezan aurkitzen ziran. Augustinek ikuspuntu biak eukazan bere begi-bihotzetan. Beretzat kultura eta politika euskeraren zerbitzuan egozan, eta gehiago, euskera zan kulturaren eta nazionalismoaren arima edo sustraia.

Biografia liburuan garai hartako idazleek izenordez sinatzeko zuten ohitura aipatu da. Ohitura eta aldi batzuetako debekuak jarri izan dira horren arrazoitzat. Julenek, liburu honen sarreran zehatz-mehatz ematen dizkigu Augustinek erabili ohi zituenak: **Augustin Zubikarai idazleak**, bere denborako ohitura jarraituz, ezizenak erabilten ditu: zortzi agertzen dira: **gehien erabilten dauan ezizena** Arteta izan da (72 bider) eta Gurutz (41 bider), **gero** Likona (18), Ibai-ondo (12), **eta** besteak **gixtiagotan**: Augustin, Zutarra, Kresala **eta** Amesti.



Lantxo hau biografiaren atarikoan datozen Andres Urrutiaren hitz batzuekin hasi dugu eta amaitu ere haren beste hitz batzuekin egingo dugu: **Liburu hau irakurtzen duenak ere laster atzemango du, Ondarroako herriak euskarari eta euskal kulturari eman dien bizitasunaren katean, kate-begi preziatua izan dela Augustin Zubikarai.**

Luis Baraiazarra Txertudi